

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gizarte Politiketako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales

Ikusgaitzak Invisibles



**FAMILIA HARRERA
ESPEZIALIZATUKO KANPAINA**

Gipuzkoa - 2020



AURKIBIDEA

- 1 **FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUKO KANPAINA 2020**
- 2 **HARRERA ESPEZIALIZATUAREN EGOERA ETA BEHARRAK**
- 3 **ZER DA FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUA.**
- 4 **ZEIN IZAN DAITEKE FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUA? Baldintzak eta eginkizunak**
- 5 **ZENBAT DENBORA IRAUN DEZAKE HARRERA ESPEZIALIZATUAK?**
- 6 **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN...**
- 7 **FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAREN PROZESUA: ZER EGIN BEHAR DA FAMILIA ESPEZIALIZATU GISA PARTE HARTZEKO?**
- 8 **INFORMATU FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAREN INGURUAN. ZURE BEHARRA DAGO**
- 9 **ZER EKARPEN EGITEN DU FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAK? Protagonisten hitzak**
- 10 **BORONDATEZKO FAMILIA HARRERA eta ESPEZIALIZATUA: Antzekotasunak eta desberdintasunak**
- 11 **KANPAINAREN BIDEOAK**



1. FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUKO KANPAINA 2020

Haur guztiek familia giro beroa eta sendoa behar dute behar bezala hazi, bizi eta hezteko. Komenigarria izango litzateke giro hori familiaren barruan lortzea; baina gure gizartean, familia askok eta askok arazo eta gabezia ugari dituzte, arrazoi bat edo besterengatik, beraien seme-alabak denbora batean behar bezala zaintzeko.

Gipuzkoan Foru Aldundiari dagokio egoera horretan dauden adingabeen segurtasun eta ongizateaz arduratzea. Hori lortzeko hainbat baliabide ditu, seme-alabak zaintzeko arazoak edo gabeziak dituzten familiei irtenbideak emateko pentsatutako baliabidean, hain zuzen ere. Hala ere, batzuetan, haur eta nerabearen ongizatea bermatzeko modu bakarra jatorrizko familiarengandik urruntzea izaten da.

Hori gertatzen denean Aldundiaren tutoretzapena gelditzen dira, eta nahiz eta maitasuna, zaintza eta heziketa emango dizkion beste familia batekin bizi izan egokiena, kasu askotan erakundearen ardurapeko etxebizitzetan bizi dira, hezitzaile, psikologo eta pedagogoen osatutako talde baten laguntza eta arreta jasoz.

Aspalditik, familia boluntarioek osatutako Foru Aldundiko Harrera Familien Programaren bitartez, maitasuna eta laguntza ematen zaizkie beraien familietatik aparte biziz diren adingabeei.

Baina beti ezin zaie erantzun egokia eman familia baten beharretan dauden haur guztiei. Horregatik, Familia Harrera Espezializatutako Programaren bidez erantzuna eman nahi zaie haur eta nerabe horiek dituzten beharrei, izan ere, ezaugarri jakin batzuk dituztela eta, zaila da familia boluntarioak aurkitzea adingabe horiek hartzeko.

Familia Harrera Espezializatuaren kanpaina, adingabe, nerabe eta familiekin esperientzia profesionala duten kolektiboek zuzenduta dago, hurrengo helburuak burutzeko:

- Gipuzkoako biztanleria sentsibilizatu familia harrera modalitate honen garrantzi eta balioaren inguruan.
- Jakinarazi gaur egun haur eta nerabe asko daudela harrera familia baten zain
- 10 harrera espezializatutako familia berriren inkorporazioa lortu, asko itxaroten daramakiten haur eta nerabeen behar bereziei erantzuna emateko alternatiba egokiena izanda.

Arrazoi honengatik eta hurrengo esaldiarekin:

Invisibles // Ikusgaitzak

... gure lurraldean harrera familia espezializatuak duen garrantzi eta beharra zabaltzea da helburua.

“Behar eta ezaugarri bereziak dituzten haur eta nerabeak zaintzeko eta haien arduraren hartzeko familiak BEHAR dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kolaboratzeko prest”



2. HARRERA ESPEZIALIZATUAREN EGOERA ETA BEHARRAK

Harrera espezializatuko programa 2007an jarri zen abian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren inizatiba izanda.

Geroztik, 95 neska-mutil inguru pasa dira programatik.

- Gaur egun 14 neska eta mutilek hartzen dute parte programan.
- eta 52 harrera familia espezializatuaren zain daude hauek hartzeko pertsona edo familiekin kontatu ahal izanez gero.

Egoera ezberdin ugari dituzten haur eta nerabeak dira, baina, zaila da beraiantzat harrera familia boluntarioekin kontaktzea. Garrantzizko datuak:

- 7 haur 0 eta 6 urte bitartekoak
- 33 neska-mutil 7 eta 12 urte bitartekoak
- 12 nerabe 13 urte baino gehiagokoak.
- Haur eta nerabe hauen gehiengoak urte bat inguru daramate harrera familia baten zain.
- eta harreraren beharra dute adin-nagusitasuna izan arte.

Kanpaina honekin hurrengo hauek aurkitu nahi dira...

**...ezaugarri eta behar bereziak dituzten haur eta nerabeak
hartzeko prest dauden, harrera espezializatuko 10 pertsona
eta familia...**



3. ¿ZER DE FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUA?

Familia harrera espezializatua 179/2018 Dekretu autonomikoan araututa dagoen familia harrera mota da:

*Familia-harrera espezializatutzat hartuko da besteren familian eskaintzen dena, baldin eta sendi horretan kide bat badago gutxienez, **beharrizan edo zirkunstantzia bereziak dituzten adingabeei begira** eginkizun hori betetzeko gaitasun, esperientzia eta prestakuntza espezifikoa dituen (8.1 Artikulua)*

BEHARRIZAN ETA ZIRKUNSTANTZIA BEREZIAK DITUZTEN ADINGABEEI ZUZENDUA

Familia harrera espezializatuak hurrengo perfilak dituzten haur eta nerabeei zuzendutako esku-hartze plana burutu ditzaketen pertsonak edo familiak bilatzen ditu:

- Anai arreba taldeak edo familia berrelkartzean daudenak.
- Zazpi urte edo gehiago dituzten haurrak.
- Aintzatetsitako ezgaitasuna duten adingabeak.
- Osasun arazo bereziak edo arriskutsuak dituzten adingabeak.
- Familian eta gizartean guztiz txertatzea zailtzen duten jokaera edo egokitzapen arazoan dituzten adingabeak.
- Bestelako behar bereziak dituzten adingabeak.

Adingabe hauei etxe bat ematea ez da askotan eginbehar erreza, izan ere, beren bizitzeko lehenengo urteetan beren jatorrizko familian bizi behar izan dituzten esperientzia eta egoera zailen ondorioz, bizipen eta zailtasunen motxila beraiekin daramate.

Harrera familia espezializatuak honetan laguntzen du...

- bizitzan zehar sortutako kalteak erreparatzeko
- bere bizitza berea ez den familia batekin partekatzea
- beren jatorrizko familiarekin harremana mantentzen duen bitartean.

Beraz adingabe hauen hainbat gauza egin beharko dituzte:

- beraien egoera berriari moldatu harrera familiarekin
- bi familia dauzkatela ulertu eta barneratu
- beren zailtasunei aurre egin, bai profesionalen esku-hartzearekin, baita beren harrera familiak sortutako esku-hartze plana burutuz.

Familia harrera espezializatua ez da adopzioa, ezta adopziorako urratsa ere. Helburua ez da jatorrizko familia ordezkatzeko, beti errespetatu eta kontuan hartu behar baitugu jatorrizko familia.

Ni nagoen harrera 13 urteko nerabe baten familia.harrera espezializatu iraunkorra da, premia bereziak ditu, abandonuak, zabarkeriak, tratu txar fisiko edo psikikoek edo biek eragin ohi dituztenen ondorio. Beste askoren artean, eragindako zauriak konpontzeko moduan datza harrerak.

Amaia, hartzaille espezializatua



4. ¿ZEIN IZAN DAITEKE HARRERA FAMILIA ESPEZIALIZATUA? Baldintzak eta eginkizunak

Dekretu autonomikoak adierazten du, harrera familia espezializatua izango dela...

...baldin eta sendi horretan kide bat badago gutxienez, beharrian edo zirkunstantzia bereziak dituzten adingabeei begira eginkizun hori betetzeko gaitasun, esperientzia eta prestakuntza espezifikoa dituen (8.1 Artikulua)

Harrera espezializatua izan daitezkeen pertsona edo familien perfil zehatzik ez da definitu. Beraz, pertsona bakarra edo bikotea izan daiteke, seme-alabekin edo gabe, baita haur edo neraberren bat dagoeneko harreran izanda ere.

Bete beharreko **baldintzak**:

- Gizarte Hezkuntza, Irakasle Ikasketa, Erizaintza, Medikuntza, Pedagogia, Psikopedagogia, Psikologia, Soziologia, Gizarte Lan edo Gizarte eta Kultura Antropologiako diploma, lizentzia edo gradua izatea edo, horren ezean, unibertsitatekoak ez diren baina osasun-arloarekin edo gizarte-komunitatearekin edo gizarte-hezkuntzarekin zerikusia duten bestelako prestakuntza-graduak.
- Gutxienez bi urteko esperientzia praktikoa izatea osasun-arloan edo gizarte-komunitatean edo gizarte-hezkuntzan; betiere, adingabeak artatzeko, zaintzeko, hezteko edo babesteko zereginetan.
- Prestakuntza osagarri espezifikoa bat izatea, beharrian edo zirkunstantzia bereziak dituzten adingabeen familia-harrerak dakartzan erantzukizunak betetzeko egokia dena eta horretarako gaitasuna ematen duena, pertsona harreragileei ahalbidetzeko haur edo nerabearen interes gorenari begira beharrezkoa den laguntza eta artapen espezifikoa ematea (errehabilitaziokoa, terapeutikoa edo bestelakoa).
- Prestakuntza espezifikoa hori foru-aldundiak berak eman ahalko du zuzenean, edo profesional adituek edo erakunde laguntzaileek zeharka, betiere sektore publikoaren kontratazioari buruzko legeriak ezarritakoarekin bat etorriz.

Aldi berean, ...:

- Familia harrera espezializatuan parte hartzeak bi adingabe harreran hartzeko bi plaza izatearen aukera eskatzen du. Ala ere, arlo honetan Gipuzkoako Aldundiaren orientazioa harrera familia espezializatu bakoitzak adingabe bakarra hartzea da (anai-arreba taldeak izan ezik) eta, beraz, bigarren plazaren helburua, programaren norabidea jarraituz, beste harrera familia espezializatu baten euskarri eta laguntza bermatzea izango litzake.
- Harrera espezializatuko familiak familia-harrera espezializaturako balorazio- eta prestakuntza-prozesua familian osatu behar du, besteak beste...
 - Harreran hartutako adingabeen beharrei egokitutako etxebizitza edukitzea.
 - Elkarrekin bizi diren familiako kideak ados egon behar dute harrera-ekimenarekin eta harrera espezializatuaren ezaugarriekin.



- Haurra edo nerabea onartu behar dute bere historiarekin, familia biologikoarekin eta bere izaerarekin, eta **ulertu behar dute arazoei aurre egin beharko dietela, beti errazak ez diren arazoei baino gaindigarriak direnei.**
 - Bere familia **biologikoa errespetatu** behar du eta ulertu behar du zein garrantzitsua den adingabearentzat bere jatorrizko familia eta honekin dauzkan bisitak. Horretarako, adingabearen eta haien arteko harremanak erraztu beharko dituzte, betiere haurrentzat edo nerabearentzat onuragarritzat jo bada, eta komunikazioa jarraia izan beharko dute, semearen edo alabaren bilakaeraren berri emateko.
 - Adingabearen jarraipenean parte hartzen duten profesionalekin kolaborazioak duen garrantzia ulertu behar du, Esku-hartze Planean adierazitako pausuak (orientazioak eta pronostikoak) jarraituz.
- Baldintzak betetzen dituen adin-nagusiko pertsonak, besteak beste...
- **Prestasun osoa** izan beharko du harreran hartutako mutilaren edo neskaen arreta bermatzeko.
 - **Beste profesional batzuekin taldean lan egiteko** eta prozesu osoan lanbide-prestakuntza eta aholkuak jasotzeko gai izan behar dute, une desberdinetan sor daitezkeen zailtasunak gainditzen joateko.
 - Familia harrera espezializatuko taldean astero egiten diren **bileretan parte hartzea.**
 - Hurrengo **eginkizunetako** batzuk garatzea: **adingabeekin esku-hartze plan egituratua garatzea**, beren eboluzio eta beharrak ebaluatzea, adingabearekin lan egiten duten baliabideekin koordinazio lanak egitea eta harrera espezializatuko programako profesionalekin jarraipen lanak egitea.

Harreragile espezializatu gisa parte hartzeak enpatia-gaitasun handiagoa eman dit arduragabekeriagatik, tratu txarregatik eta abarregatik senideengandik banantzea bizi izan duten pertsonen aurrean. Orain, kontzienteagoa naiz familia-ingurune batean babesgabetasun jarraituko egoera batek maila psikikoan uzten dituen ondorioetaz.

Julia, hartzailer espezializatua



5. ¿ZENBAT DENBORA IRAUN DEZAKE HARRERA ESPEZIALIZATUAK?

Adin eta ezaugarri ezberdineko mutil eta neskak harreran hartzeko prest dauden familiak behar dira. Babes neurri konplexua bada ere, familiek diotenez...

Jaio zenetik zurekin egon ez den eta bere ohiturak dituen haur bat hezi eta zaintzeak pazientzia dosi ona eskatzen du. Perspektiba hartzen jakitea, errutina apurka-apurka lortzen dela ulertzea eta atzerapausoak maiz egiten direla ulertzea, pazientzia nahikoarekin armatzen bagara bakarrik da posible, pixkanaka egiten joateko eta bidean etsi ez dezagun.

Egun bakoitzak kontatzen du.

Melani, hartzaile espezializatua

Harrera bakoitzaren iraupena haur bakoitzaren behar espezifikoaren arabera da, bai eta gurasoen etxetik irteera eragin zuten arazoak konpontzeko behar duten denboraren arabera ere.

Ez daude bi harrera berdin; beraz, kasu bakoitzerako harrera-modalitate egokiena bilatu behar da.

Hainbat harrera-modalitate aurki ditzakegu:

- Larrialdiko familia-harrera, sei hilabete inguruko iraupenarekin eta gehienbat hiru urte baino gutxiagoko haurrei zuzendua, hauek instituzionalizazioa ekiditeko beren etorkizunari buruzko erabakiak hartu bitartean.
- Aldi baterako familia-harrera, behin-behinekoa izango dena, adingabearen egoera dela-eta aurreikus daitekeelako hura berriro sartuko dela bere familian, Bi urte inguruko iraupena izanik.
- Familia-harrera iraunkorra, Itzulera-pronostiko argirik ez duten egoeretara zuzenduta dago, baina haurrak jatorrizko familiarekin duen lotura emozionala mantendu egin behar da. Iraupena mugagabea da.



“Inork ez du esaten erraza denik: baino pena merezi du.”



6. GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN...

Familia-harrera esperientzia egokia izan dadin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Departamentuak bi laguntza-mota eskaintzen ditu harrera osoan zehar:

- Konpentsazio ekonomiko bat harrera espezializatueterako
- Teknikariez osatutako talde baten laguntza.

LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Dekretu autonomikoak 179/2018 adierazten du:

6.- Kode Zibilaren 142. artikulua adingabeari begira ezarritako mantenuaren kontzeptu juridikoa estaltzeko eman beharreko konpentsazio ekonomikoaz gain, foru-aldundiak ezar dezakeen laguntza ekonomikoaren xedea honako hau izango da: harreragileak betetzen dituen funtzioen ondoriozko kostuak estaltzea, adingabeak behar dituen laguntza teknikoan eta artapen hezitzaile edo terapeutiko espezializatuaren testuinguruan, eta bere gain hartutako betebeharrak estaltzea, foru-aldundiko pertsonal teknikoak finkatutako ohar, gidalerro, orientazio edo jarduketa-jarraibideen arabera; betiere, adingabearentzako laguntzari eta artapen bereziari eta haren bilakaeraren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez. (8 Artikulua)

Beraz, harrera familia espezializatu guztiek bi laguntza ekonomiko jaso ahal izango dituzte:

1. [Hileko konpentsazio ekonomikoa](#) harrera-familiarentzat, harrera-gastuak arintzen laguntzeko..
2. Eta laguntza bat, prestakuntza- eta esperientzia-arloko baldintzak betetzen dituen pertsonak kasuari heltzeko bere gain hartzen dituen funtzioen kostuak estaltzeko, besteak beste:
 - Heziketa-plan individualizatu bat garatzea eta harreran hartutako mutilarekin edo neskekin ebaluatzea.
 - Adingabeak jatorrizko familiarekin komunikazio egituratua eta aldizkakoa izatea.
 - Kasuan esku hartzen duten baliabideekin koordinatzea.
 - Etengabeko lankidetzaren Babeseko Banakako Planarekin (kasu-plana) eta kasuaren jarraipen orokorra egiten duten profesionalekin.
 - Neskatoaren edo mutikoaren bilakaerari buruzko txostenak egitea ...
 - Ezarritako prestakuntza- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten harrera-talde espezializatuaren parte hartzea, asteroko bileretara joanez ...



Ezarrirako lan-metodologia eta jarduteko irizpide argiak dituen hezkuntza-talde bateko kide izango da, behar eta egoera bereziak dituzten neska-mutil horien askotariko premiei eta zailtasunei aurre egiteko prestakuntza eta aholkularitza bermatzeko.

Bigarren laguntza hori gizarte-ekimeneko agintzari Sozietate Kooperatiboarekin, Gipuzkoako Familia Harrera Espezializatuko Programaren erakunde esleipendun gisa, [zerbitzuak emateko merkataritza-kontratu](#) baten bidez sinatuko da.

Iraupena harrera-aldiaren baliokidea izango da, akoplamendu-fasea barne. Kontratu hori autonomo gisa kudeatzearen ondoriozko zerga- eta lan-erantzukizunak harrera espezializaturako ezarrirako prestakuntza- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituen harreragilearenak izango dira.

Artatutako plaza bakoitzeko diru-esleipena, bai eta adingabearen arretatik eratorritako gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoa ere, pertsona harreragilearen kualifikazioaren eta adingabearekiko arduraldi- edo prestasun-beharren arabera ezarriko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezarrita duen erregulazioarekin bat etorriz.

LAGUNTZA TEKNIKOA

Familia espezializatu guztiek talde tekniko baten laguntza izango dute harrera osoan, egunean 24 orduko arretarekin, urte osoan, bai adingabeentzat, bai harrera-familia espezializatuentzat, bai jatorrizko familientzat.

Laguntza teknikoak familien arteko bitartekari bezala balio du, alde guztien arteko lankidetzat errazten du eta haurrei azalpenak jasotzeko aukera ematen die, harreraren zergatia, bizi-historia eta sentimenduak eta bizipenak uler ditzaten.

Aholkatuko nuke, programan parte hartzeko beldurrik ez izatea, eta hala sentitzen badute, gainditzea. Profesional-sare bat dagoela familia-harrera espezializatuko programa honen atzean, prozesu osoan gidatzeko eta behar duzun guztian laguntzeko. Estrategiak eskaintzeaz gain, sor daitezkeen egoerei aurre egiteko. Ondo egituratutako programa da, eta berdinen taldean, guraso harreragile espezializatuaren taldean ere laguntza aurkitzen duzu. Ez zara inoiz bakarrik sentitzen, uneoro babestuta eta lagunduta gaude, eta horrek lasaitasuna ematen dizu. **Esango nuke lan asko dagoela egiteko, asko emateko eta jasotzeko.**

Amaia, hartzaile espezializatua

"Familia-harrerak protagonista guztien elkarlana eskatzen du"



7. FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAREN PROZESUA: ZER EGIN BEHAR DA FAMILIA ESPEZIALIZATU GISA PARTE HARTZEKO?

Harreran hartu dezake...

- Familiak
- Bikoteak
- eta pertsona bakarrak,
- seme-alabekin edo gabe.

Haurrak hainbat egoeratan daudenez eta ezaugarri eta behar desberdinak dituztenez, familia mota ezberdin guztiek aukera bat eman eta eskaini diezaiekete premia bereziak dituzten haur horiei.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harreragile gisa lankidetzan aritzeko interesa duten pertsonen harrerarako prestakuntza eta balorazio psikosozialeko prozesu bat egin behar dute. Prozesu horretan, beren pribatutasunarekiko erabateko errespetua bermatzen da, eta prestakuntza hartzaile espezializatu gisa izan dezaketen eginkizunarekin zerikusia izan dezaketen alderdi guztiak ulertzea bideratuta dago. Prozesu horrek esperientzia haurrentzat eta nerabeentzat nahiz harrera-familiarentzat ona izango dela bermatzen laguntzen du.

Hartzaile espezializatua izan nahi duen familia batek eman beharreko pausuak:

1. PRESTAKUNTZA ETA BALORAZIOA

Familia harrera profesionalizatuan interesa duen pertsonak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentura bideratu behar du bere eskaintza. Eskaintza egiten duen pertsona, beharrezkoa den formakuntza duen familiako kidea izan beharko da. Departamentu horretan neurriari buruzko oinarrizko informazioa eta proposatutako gaiari buruzko argibideak emango zaizkio eta, ondoren, bere eskaintza bideratuko da. Bestalde, nahi izanez gero, Familia Harrera Espezializatuko Programarekin harremanetan jarri daiteke. (943 54 44 97 - pafe@agintzari.com)

Behin eskaera jasota, programaren inguruko informazio hitzaldia egingo da Agintzariko bulegoetan. Hitzaldiaren ostean eta eskaera egin duen pertsonak aurrera jarraitu nahi badu, Gipuzkoako Foru Aldundian (Txara 2. Paseo Zarategi, 99 – 20015 Donostia) bere hartzailea izateko eskaintza egin beharko du, idatziz eta beharrezko dokumentazioa eramanez.

Interesatuak Aurrera jarraitzeko asmoa agertzen badu, banakako balorazio prozesu batean parte hartuko du, harrera egiteko duen gaitasuna zehaztu ahal izateko. Kontuan hartuko dira, titulazioari eta esklusibitateari lotutako ezinbesteko baldintzez gain, faktore pertsonalak nahiz bikote, familia eta gizarte faktoreak, eta baita familia harrera profesionalizatuaren aurrean hartzaileak dituen jarrerak ere

Balorazio prozesuan erdiegituratutako elkarrizketak egingo dira eta proba psikotekniko bereziak ere aplikatuko dira. Gainera, bisitak egingo dira hartzailearen etxera familiako kide guztiekin hitz egiteko.

Prozesu hori bukatu ondoren, egokitzen jotzen bada hautagaia harrera profesionalizatua aurrera eramateko, hautatuen zerrenda batean sartuko da bere ezaugarriak dituen hartzaile baten beharra duen adingaberen bat agertu arte.



Itxaronaldiak irauten duen denboran, hautatutako pertsonak parte hartuko du ekintza informatzaileetan eta prestakuntza ekintzetan, bereziki diseinatuta baitaude hartzailearen lana errazteko familia harrera profesionalizatua martxan jartzen denean.

2. ADINGABEAREN INTEGRAZIOA HARTZAILEAREN ETXEAN.

Haurra edo nerabea familia espezializatuaren etxean integrazteko prozesuak hiru etapa ditu:

- **Parekatzea:** Adingabearen ezaugarri pertsonalak eta beharrak kontuan hartuta hartzaile profesionalizatu bat esleitzen zaio.
- **Elkartzea:** Haurra edo nerabea eta hartzailea ezagutu egiten dira eta adingabea familia giroan pixkanaka sartzeko prozesua hasten da elkarri egokitzeko.
- **Eratzea:** Aldundiak adingabearen zaintza ematen dio familia espezializatuari eta alderdiek kontratu bat sinatzen dute, harrerari dagozkion ezaugarriak eta harreran hartutako adingabearen jatorrizko familiaren egoera jasotzen dituena.

Heziketari buruz nekien guztia (nire amaren esperientziaren bidez ikasi nuena) bere beharretara hobeto egokitzen diren egiteko modu berriei lekua egin behar izan die. Egokitzeko gaitasun hori lantzen ari gara etengabe, baita nire 2 urteko semea ere.

Melani, hartzaile espezializatua

invisibles



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politiketako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales



8. INFORMATU FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAREN INGURUAN. ZURE BEHARRA DAGO

Pertsona edo familia interesatuak neskato edo mutiko baten harrera espezializatuan parte hartzeko, harremanetan jarri zaitezke Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako sailan...
(<https://www.gipuzkoa.eus/es/-/gipuzkoak-60-harrera-familia-behar-ditu>)

...edo zuzenean harremanetan jarri...

Familia Harrera Espezializatuko Programa

943 54 44 97

pafe@agintzari.com

Kontaktu honetan familia harrera espezializatuaren inguruko alderdi garrantzitsuenak azalduko dira: neska-mutilen ezaugarriak, merkataritza-kontratazioarekin lotutako alderdiak (betebeharrak, funtsezko zereginak ...) eta harrera espezializatuan inplikaturako pertsonen eta profesionalen zeregina eta funtzioak.





9. ¿ZER EKARPEN EGITEN DU FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATUAK? Protagonisten hitzak

Beharrezkoa den denboran maitasuna, dedikazioa eta laguntza aurkitzen dituen familia-ingurune batean hazteko aukera eskaintzen dio haurrari.

Haur horiei guztiei etxe egonkorra, beroa, normalizatua eta egokia ematen die harrerak, hezkuntza-jarraibide argiak dituen, eta adingabeek lotura berriak sortzeko, beren esperientzia kaltegarriek eragin dizkieten zauriak konpontzeko, maila fisiko eta emozionalean hobetzeko, familia-eredu egokia ezagutzeko eta jatorrizko familiarekin duten identitateari eta harremanari eusteko aukera ematen die.

“Harrerak beren iragana eta oraina ulertzen laguntzen die, etorkizun hobea izateko aukera ematearekin batera.”

Zer eskaintzen dio mutil edo neska bati familia espezializatuko harrerak?

- Familia egoki batean garatzeko aukera.
- Egoera emozionala hobetzea eta fisikoki garetzea.
- Ohiturak, arauak, arazoei aurre egiteko modu berriak, harreman-modu berriak ikastea.
- Bere nortasuna eta jatorrizko familiako kide izatearen sentimendua mantentzea.
- Gurasoekiko harremanaren kalitatea hobetzea.
- Bere iragana ulertzea, oraina bizitzea eta etorkizunerako alternatiba bat eskaintzea.

El acogimiento no deja de ser **un espejo en el que mirarse**. Aunque parece que se trata del Otro, hay que hacer un ejercicio fuerte de mirar para adentro y reconocer, con toda la humildad que el ego nos permite, qué se nos remueve y con qué conectamos cuando nos enfrentamos a historias tan difíciles, a provocaciones, a caos en el hogar, a quejas, a silencios.

¿Por qué seguir en esto entonces? La respuesta es obvia. Porque tener una familia que te quiera y te cuide es un Derecho de la infancia y la sociedad en su conjunto es responsable de garantizarlo. En mi caso, el menor que llegó a mi casa estaba deseando tener una familia. **¡Menudo reto estar a la altura!**

Melani, acogedora especializada



Bere egonkortasun psikosoziala areagotzen lagundu du, eta ahaleginean, iraunkortasunean eta maitasunean oinarritutako errutina bat izaten ikasi du.

Julia, hartzaille espezializatua

Gure ustez, eskaini ahal izan diogun gauzarik garrantzitsuena segurtasuna eta aurreikuspena izan dira. Bere istorioa dela eta, beldur asko zeuzkan, eta horietako asko oraindik azaltzen dira batzuetan.

Familia harreraren unerik onena:

“Gaur irakurriko al didazu?” Berak gauero eskatzen dit ipuin bat irakurtzea, eguneroko gure momentu goxoa da. Oso polita da une hori nola garatu den hausnartzea. Hasieran ipuinak irakurtzen nizkion lo hartzeko oso gaizki pasatzen zuelako, beldurrak eta amesgaiztoak izaten zituen, orain ez dauka beldurrik normalean, baina gure tartetxo da, egunero lokartu aurretik, bera goxo-goxo ohean sartuta eta ni ondoan eserita irakurtzen.

Rocío, hartzaille espezializatua



10. BORONDATEZKO FAMILIA HARRERA eta ESPEZIALIZATUA


Antzekotasunak eta desberdintasunak

Borondatezko familia harrera	Familia harrera espezializatu
Hartzailea: pertsona bakarra edo bikotea	Hartzailea: bietako batek prestakuntza eta esperientzia espezifiko duen pertsona edo bikotea
Adingabeen ezaugarriak: zehaztu gabekoak	Harreran hartutako adingabeen behar eta gorabehera bereziak dituzte. Perfil zehatzak.
Familia hartzaileak prestakuntza eta laguntza teknikoa jasotzen ditu	Hartzaile espezializatuak prestakuntza eta laguntza teknikoa jasotzen ditu, baina aurrez ere baditu ezagupen bereziak haur babesaren alorrean.
Familia hartzaileak diru laguntza jasotzen du harreran hartutako haur edo nerabearen beharrei aurre egiteko	Haurren edo nerabearen premiak betetzeko behar den konpentsazio ekonomikoa jasotzeaz gain, hartzaile espezializatuak (ezarritako esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen dituenak) bere gain hartzen dituen funtzioen ondoriozko kostuak estaltzeko laguntza ekonomikoa izango du. Zerbitzuak emateko kontratu batek arautuko du, Agintzari erakundearekin sinatuta, programaren esleipendun gisa.



11. KANPAINAREN BIDEOAK

Invisibles - Ikusgaitzak



Egin klik irudian bideoa ikusteko

